



**Udal-gobernu taldea:
“Covid19-ak baldintzaturiko
legealdia izango da”**

**Erosketa bonuen kanpainak
segida izango du**

**Santio egunez sokadantza
egingo da Zubietan**



**“Covid19-ak krisi handi bat ekarriko du
eta gazteak izango gara bereziki kolpatuak”**



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

**Tapa eta
aurkibideak
prest**



Agur esan diogu 2019 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2019ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



ZERBITZU BERRIAK!

ORAIN ASTEBURUETAN...
EGUNEAN ZEHAR **TABERNA IREKIA!**
ZATOZ GURE TERRAZARA!

OSTIRAL, LARUNBAT ETA IGANDE **GAUETAN
JATETXEA IREKIKO DUGU!**
AFAL EZAZU GURE TERRAZAN EDO JANGELAN
ALDEZ AURRETIK ERRESERBA EZAZU!

ASTEBURUKO MENUA
25€ (eguerdi eta gauetan ere!)

*Olarrondo
jatetxea*



USURBIL 943 360 376

626 686 036 www.olarrondojatetxea.com

Albisteak iruditan



Udajolaseko gaztetxo hauek padel-surf egiten aritu ziren aurreko astean. Uretara sartu aurretik atera genien argazkia.

Udajolaseko gaztetxoak Txokoalden izan ziren uztailearen 16an, padel-surf egiten. Begi Bistan enpresako begiraleekin batera

zeharkaldi bat egin zuten Oria ibaian barena. LH3, 4, 5 eta 6ko gaztetxoak bi txandatan ureratu ziren. Argazkian ageri diren

neska-mutilak Txokoaldeko parkingaren ondoan topatu genituen. Palak eskuratu berri, erriora sartzeko irrikitan.

Laburrean

Oporretara goaz, datorren NOAUA! irailaren 11n

Eskuartean duzun ale hau osatu eta gero, oporrak hartu ditugu. 834. astekarirako ohar edo zorion agurrik baduzue erredakzioa@noaua.eus helbidera helarazi, irailaren 7a baino lehen.

Etxealdiako zubia itxita egongo da hainbat egunez

Uztailearen 20tik hasita, lau astez itxita egongo da Etxealdiako zubia. Aspaldiko eskaera gauzatze bidean da Foru Aldundia. Zubiaren egitura eta zoladura konponduko dituzte.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aritz Gorriti

Ziurgabetasuna nagusi den garai honetan, aurteikuspenetara joaten zaigu sarritan pentsamendua. Asmatu ezinik ibiltzen garen etorkizun hurbil nahiz garai urrunagora. Eta erantzun bakarra sarritan; datorrenaz ezer gutxi dakigun honetan hala moduzko ziurtasuna aurkitu beste erremediorik ez dugu. Bakoitzak ahal duen moduan. Arreta unean uneko bizipenetan finkatuta.

Kinieletan badira aste gutxi barru berriz etxeratze bidean izango garelako dioenik; huteskunde eguna igarota neurri gogorragoak hartzen hasiko direla argi duenik.

Begirada birus agerraldietan jartzeko gonbita luzatzen digute eguneroko. Azken egunotan, besteetan baino gertuago ikusi dugu etxetik. "Positiibo" arrastoaren atzetik dabilta, bistan den moduan, kontrolaezina den pandemia honetan; eta ia dena konta-

tzen digute. Pribatutasunaren muga gainditu du osasun krisialdiak, hainbat kasutan modu eskandalagarrian.

Egunotan inoiz baino bizia go arduraz jokatzeko mezuak. Bistan denez, etxeko lanak ez gara fin egiten ari. Baina esango nuke asmatu ezinik gabiltzala nola egin, eta hor, "hau egin dezakezu baina era berean hauxe ez" eskema horrek edota "lasaitasun" giroan bizitzetik bapatean muturreko debekua aplikatzeak zenbateko eragina izango duen ikusteko da. Argi dena da ez dagoela zero arriskurik, gure osasuna eta ondokoarena zer neurritan arriskatzeko prest garen erabaki beharrean garelako une oro.

Elkar zaintzera "kondenatu" gaitu pandemia honek. Baina elkar zaintzeak aliantzak erakitzea dakar ezinbestean; ni zu gabe ezin nahiz babestu, zu ni gabe ezta. Elkar zaintzeko egoki harremandu behar ordea eta ez dakit ba zertan diren hartuema-

nok goitik behera agintzen ari diren eta herritarron artean.

Erabaki gunea Madriletik Gasteizera gerturatu da, baina gugandik hamarnaka kilometrorra egoten segitzen du. Eta eragina bidean galtzen duela dirudi. Oreka puntuak, tarteko bideak izaten dira zailenak jorratzen sarritan; baina harremana "agindu-obedientzia" eskeman mantentzea ez dirudi oso eraginkorra.

Batez ere agintzen duena herritarroei exijentziaz zuzentzen zaigunean, esku batean agindua, eta bestean agindu hori gauzatzeko baliabideak eskaini beharrean, esku hori hutsik duenean. Behin eta berriz ikusten ari gara osasun krisialdi honetan. Sistema honen miseria azaleratu ditu covid19-ak, lehendik ere bazen baliabide falta areagotu du. Argi geratu da zaintza hitz potoloogia dela bizpahiru agindurekin egoki gauzatzeko, lehendik ere baliabideak falta zirenean. Ikusi

da, egun batetik bestera bertan behera utzi behar izan diren udalekuek isolamendu gogorretik zetozen haurrak zenbateraino hartu diren kontuan; agerraldi bat dagoen bakoitzean adinekoen egoitzei begira hartzen diren erabakietan benetan zenbateraino hartzen diren kontuan kolektibo honen beharrak; edota osasun zerbitzuekin gertatzen ari dena. Osasun arazoaren kudeaketak zer neurritan izaten segitzen duen telefono bidezkoa; pazienteak telefonoz diagnostikatzera heldu gara, horrek duen larritasunarekin. Hiru zaintza adibide baino ez, hortik zehar istorio gogor eta bidegabe anitz daudelako. Pandemia honek lapurtu digun eta isiltasunik handienez bide bazterrean uzten ari den hainbat pertsonetikiko gizatasun falta nabaria da. Onartezina eta salagarria. Kasuotan ere osasuna eta bizitza baitago jokoan.

Aritz Gorriti

Imanol Ubeda

Luis Aranalde

Hitzarmen berritzeak eragile sozialekin

Urtero moduan, Usurbilgo Udalak hitzarmen berritzea sinatu zuen aste hasieran Etxean Nahi Ditugu, Odol-Emaleak eta DYA-rekin. "Hirurak ere ongizate esparrukoak dira, eta urtero berritzen dituzte hitzarmen horiek, hiru taldeek gizarteari egiten dioten ekarpenaren garrantzia tarteko. Guztira, 7.500 euroko dirulaguntza banatuko dute hiru taldeen artean", berri eman du Udalak.



Guztira, 7.500 euroko udal dirulaguntza jasoko dute Etxean Nahi Ditugu, Odol-Emaleak eta DYA elkarteek.

Komikia



Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangaren bigarren alaba jaio da

Ursbilen Nahi Ditugu bilguneak berri eman duenez, jaio da Maddi, Aranjuezen preso segitzen duten Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangaren bigarren alaba. Uztailaren 18an izan zen, iragan larunbatean. “Goizaldera atera zuten Olatz Aranjuezeko espetxetik ospitalerantz eta erditzea ondo eta azkar igaro zen”, berri eman dute. Euskal presoan eta haien senideen eskubideen aldeko bilguneak “biak ala biak zoriondu nahi ditugu Maddiren etorreragatik”.

Beste behin ordea, “lehen Xuarekin egin bezala, gogorazi nahi dugu familiak ez duela zertan banatuta egon behar. Izan ere, lege arrunta aplikatuz, Olatz eta Patxi baldintzapeko askatasunean jartzeko aukera izan, badelako”. 2018ko ekainean bete zituzten espetxealdiaren hiru laurdenak, ordutik egon zitezkeen baldintzapeko askatasunean. Iragan ekainean 11 urte bete zituzten espetxean. Gaurkoz, 2021eko ekainerako dute finkatua irteera data.

“Patxi Urangari ez zioten onartu erditzean egotea”

Oinarritzko eskubideen urraketak pairatzen segitzen dute egun. Maddiren jaiotzarekin gertatu dena izan da azkena. Olatzekin “preso dagoen kide baten bitartez jakin zuen familiak erietxera eramane zutela eta berehala jarri ziren abian. Arratsaldean Olatzen amak eta



Lege arrunta aplikatuz, Olatz eta Patxi baldintzapeko askatasunean jartzeko aukera legoke. Espetxean jarraitzen dute ordea.

Xua bere alabak bisita egitea lortu zuten. Alta, hurrengo eguneko goizean oztupoak jarri zizkieten baina, azkenean, arratsaldean utzi zieten Maddi eta Olatzekin egotea.

Patxiri, haurraren aitari ordea erditze unean egotea eragotzi zioten. Hala azaldu du Ursbilen Nahi Ditugu bilguneak. “Eskaera egin zuen arren, espetxe berean dagoen Patxi Urangari ez zioten onartu erditzean egotea, beste behin ere aitatasun eskubideari muzin eginda”.

Horregatik beste behin, eskubide urraketok salatu eta Xuarekin bezala, orain Maddirekin ere Olatz eta Patxiren etxeratzea eskatzen du Ursbilen Nahi Ditugu bilguneak. Exijentzia hau plazaratuko dute uztaileko azken ostiraleko elkarretaratzean, Maddiri ongietorria ematearekin batera. Uda parte honetarako mobilizazio gehiago ere iragarri dituzte.

Lapurreta saiakeragatik atxilotua

55 urteko gizonezko bat atxilotu zuen Ertzaintzak aste hasieran, ustez etxebizitza batean lapurtzen saiatzeagatik. Astelehen goizaldeko 3:30ak aldera gertatu zen. Antza denez, “etxe horretako bizilagun-

nek ezezagun bat aurkitu zuten barruan, beren jabetzako gauzez betetako poltsa bat zeramala. Ustekabean harapatu zutela ikustean, ustezko lapurrak poltsa utzi eta ihes egin zuen”, berri eman du

Datozen egunetarako mobilizazioak

Uztailak 23-25,

ostegunetik larunbatera

■ Sareren “Izan Bidea” dinamikaren baitan, bizikleta mar-txa. Izen ematea: sare.eus
Antolatzailea: Sare.

Uztailak 31, ostirala

■ 20:00 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Olatz eta Patxiren bigarren alabari, Maddiri ongietorria eman eta hiruren etxeratzea eskatuko da.

Abuztuak 2, igandea

■ 12:00 Hondartzetako mobilizazioak. Usurbildik Orioko hondartzara joateko deia. Biltzeko gunea; Orioko autopistako zubi azpian.

Abuztuak 28, ostirala

■ 20:00 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

Deitzailea: Ursbilen Nahi Ditugu.

Ertzaintzak. Ertzaintzak inguruko parke batean ezkutatzeko saiatzen ari zela aurkitu zuten.

Lapurtzen saiatu nahi izan zuela egiaztatu ondoren, atxilotuta eramane zuten.

Ostegun honetan, Udalbatzarra

Ostegunetik 18:00etan udalbatza aretoan. Besteak beste gaiok hartuko dituzte ahotan: 2019ko Aurrekontu eta Ondare Administrazioaren Kontu Orokorra; 2020ko Egutegi Fiskala eta Udal Aurrekontua egokitzea; EIOZ-ICIO Ordenantza Fiskalaren hobariak aldatzea; 2020ko Lanpostuen Zerrendaren eta Plantilla Organikoaren aldatzea; Ugartondo eremuko xehetasun-azterketaren aldatzea behin betikoz onartzea.

Xehetasunak noaua.eus atarian eta oporren osteko lehen aldizkarian.

Hurbilagoren erosketa-orgen zozketa

Hurbilagoko kide diren sal-tokietan uztailaren 24ra arte erosketak egitearen truke, “Ursbilen bizi, Ursbilen erosi” aldarria biltzen duten erosketa karro laranjak eskuratzeko aukera izan dezakegu. Hurbilagoko denda haue-tan erosketak egin, trukean emango diren txartelak datu pertsonalekin osatu eta uztailaren 24tik aurrera denda bakoitzak zozketatuko duen karro baten zozketan parte hartu ahalgo da.

Uztailaren 27an, Usurbil F.T.-ren elkartasun zozketa

Covid19-aren eraginez, egoe-ra zail honetan futbol kluba laguntzeko azken asteotan martxan izan duten errifa salmentari lotutako zozketa hilaren 27an egingo du Usurbil F.T.-k, 18:00etan Haranen. Futbolari ezagunen kamisetak edota herriko musika taldeen sortze-lanak banatuko dituzte.

“Covid19-ak krisi handi bat ekarriko du eta gazteak izango gara bereziki kolpatuak”

Ernaik, Aztarrika asanbladak, Kafe Tertulia talde feministak eta Ikasleen asanbladak gazteen egoera zein den ezagutzeko galdetegi bat burutu dute. Beste eragile batzuk ere hartu dute parte azterketa soziologiko honen prestaketa lanetan. Ekimen hau sustatu duten hiru gazterekin batu gara.

NOAUA! Nondik nora sortu zen galdetegi bat egiteko ekimena?

Jon Mikel Azpiazu. Konfinamenduan zehar hasi zen gure hausnarketa, ikusten genuelako Covid19-ak krisi handi bat ekarriko zuela eta gazteak izango ginela bereziki kolpatuak. Ideia hau zen: herri mailan argazki bat ateratzea. Konfinamenduak zer suposatu duen eta herriko gazteriak nola ikusten duen etorkizuna, ondoren mugimendu bakoitzak bere talde eragileetan borroka ezberdinak abiatu ahal izateko.

Antzeko azterlanik egin al da beste herrietan?

Malen Arregi. Guk Durangoko adibidea hartu genuen eredu gisa. Hortik hasi ginen.

J. M. A. Euskal Herrian gazte mugimenduko eragile ezberdinak antzeko prozesuak egiten ari dira herri dezentetan. Ez da hemengo kontua bakarrik izan.

Maila nazionalean, Gazte ahotsa izeneko dokumentua plazaratu berri da, Euskal He-



Konfinamenduan zehar galdetegi bat burutu dute. Usurbilgo 237 gaztek hartu dute parte. Ekimen honen sustatzaile batzuekin batu gara. Ezkerretik hasita, Haritz Rekondo, Malen Arregi eta Jon Mikel Azpiazu.

JON MIKEL AZPIAZU

“Konfinamenduak zer suposatu duen eta herriko gazteriak nola ikusten duen etorkizuna jakin nahi genuen”. 237 gaztek erantzun dute galdetegia

erriko gazte mugimenduak egiten dituen aldarrikapen ezberdinak batzen dituen.

Galdetegia konfinamenduan zehar egin zen, ezta?

Haritz Rekondo. Bai, talde eragile bakoitzak galdera ezberdinak prestatzeko ardura hartu zuen. Eragile bakoitzak bere esparrua

ukitzen zuen alderdia jorratuz eta horien inguruko analisia egiteko galderak sortuz.

J. M. A. Haritzek aipatu duen moduan, esparru ezberdinak banatu genituen. Hezkuntza arloa ikasleek landu zuten, zaintzarena herriko talde feministak...

Galdetegia nola burutu zenu-ten?

M. A. Galdetegia osatzeko garaian, talde eragile ezberdinetako kideek galderak prestatzeko ardura hartu zuten. Beste taldeetako kideekin ere partekatatu ziren galderak, denon artean osatzeko. Zerbait gehitzeko bazen, horretarako aukera zegoen. Dokumentu bat egin

genuen eta ondoren galdetegia sortzen hasi ginen. Dena batu, kohesio batekin.

H. R. Zabalpena whatsapp bidez egin zen.

M. A. Eta sare sozialen bidez. Adin tarte ezberdinak markatu genituen eta batzuk ardura bat hartu genuen adin tarte jakin batzuetan, ahalik eta gazte gehienengana iristeko helburuarekin.

H. R. Galdetegiaren prestaketan modu zuzenean parte hartu ez zuten elkarteetara eta koadriletako taldeetara zabaltzeko konpromisoa hartu genuen. Enfasia hor jarri genuen, lagin interesgarri bat hartzea eta lortu da. %29koa izan da parte-hartze maila.

“Aldarrikapen taula bat plazaratzea ez legoke gaizki”

NOAUA! Partehartzea handia izan da. Jarraipenik izango al du lanketa honek?

Haritz Rekondo. Orain talde eragile bakoitzak hausnarketa sakon bat egin behar du. Iraitetik aurrera bere ildoak eta bere ardatzak nola finkatu era-

bakitzeko. Eta aurrera begira, talde eragileen arteko elkarlana interesgarria izango da.

Jon Mikel Azpiazu. Galdetegiaren osaketan eragile bakoitzak bere arloa aberastu duen bezala, emaitzak jaso eta gero garrantzitsua izango da eragile

bakoitzak fokalizatzea datuetan zer borroka zehatz bidera dezakeen hemendik aurrera. Aldarrikapen taula bat plazaratzea ez legoke gaizki. Eragileen mahai horri ere jarraipena ematea interesgarria iruditzen zaigu.

Bestetik, datuak gurutzatzea ere ondo legoke. Enpleguaren arloa adibidez, generoka edo adin tarteka nola ematen den ikusteko. Iruditzen zaigu lagin handi bat lortu dugula, datu pila bat ditugula eta honi zukua atera behar zaiola.

“Gabezia handi bat ikusten da etxebizitzaren arloan”

NOAUA! Atalka antolatu duzue galdetegia. Kulturaren, ekitaldiak egiteko plaza baten gabezia aipatu dute askok. Antzeko aldarrikapenik sumatzen al zenuten?

J. M. A. Bai, baina ez genuen uste hain zabaldua zegoenik ideia hori herrian.

H. R. Sutegi batekin zerbait dagoela dirudi baina gehiengo handi batek azaldu zuen gabeziarena.

M. A. Gainera, ez zen galdera bati eginiko erantzuna izan. Proposamenak egiteko ataletik atera zen.

Gaztetxe baten faltarekin du zerikusia akaso?

H. R. Bai, uste dut gazteek hori dutela faltan, autogestioaren kontzeptuan oinarritutako gune egonkor bat.

Etxebizitzaren arloan, Covid19-a emantzipazioaren kalterako izan dela diote parte hartu duten gazte askok.

J. M. A. Hainbat datu esanguratsu daude arlo horretan. 10etik 1ek bakarrik jaso duela laguntza egoera honetan. Beste datu esanguratsua, soldataren herena uzten dutela etxebizitzan (alokairuan edo maileguan).

Usurbilen Covid19-ak azaleratu egin du arazoa; aurretik hor zegoena eta orain okerrera egin duena. Inpresio hori dute gazteek.

Usurbilen proiektu ezberdi-



Konfinamenduaren moduko egoera batean, “gazteen soldatak hutsean geratu dira”, azaldu digu Jon Mikel Azpiazuk. “Prekarietatearen seinale bat da”.

HARITZ REKONDO

“Gazteek autogestioaren kontzeptuan oinarritutako gune egonkor bat sumatzen dute faltan”

nak daude, Txirikorda adibidez, eta gazteok interesa agertu dugu eta parte hartzen ari gara.

H. R. Baina gabezia handi bat ikusten da. Beste datu esanguratsua da, epe laburreko ordainketei aurre egiteko bi herenek arazo dezente izango dituztela.

Enplegua atalean, gazteen iritziak ez dira batera baikorrak. Aurretik ere egoera eskasa bazen, epe laburrean lanpostu bat aurkitzea zaila izango dela ondorioztatu dute.

J. M. A. Klase partikularrak ematen, entrenatzaile moduan... Lan mota hori da nagusi gazteen artean eta konfinamenduari galdutako egin da. Prekarietatearen seinale bat ere bada, egoera ezegonkor batean gazteen soldatak hutsean geratu dira.

H. R. Etorkizuna ilun ikusten da.

Hezkuntza arloko ondorioak

irakurtzean, ikasleen Zaintza Sarearekin akordatu gara. Nola joan zen esperientzia hura?

M. A. Partehartzea ez zen oso handia izan. Deiak konfinamenduaren amaieran sortu ziren, eta irakasleen inplikazioa handiagoa izan zen bukaera aldean. Baina, orokorrean, ondo baloratzen dugu. Galdetegian sareari jarraipena ematearen alde agertu dira gazteak.

Jarraipena izango du hortaz?

M. A. Akaso beste modu batean, baina ikasleen saretze hori mantentzea oso aberatsa iruditzen zaigu.


Malen Arregi: “Lanketa bat egin behar da zaintza-lana zer den azaltzeko”

NOAUA! ‘Etxeko Harremanak’ izeneko atala ere bazen galdetegian. Ondorioetako bat da modu parekatuan egiten direla etxeko lanak. Zaintza arloko ardurak ordea, emakumeengan erortzen dira.

Malen Arregi. Zaintza-lanaren

garrantzia oso barneratuta dago baina jendeak akaso ez daki zer den zaintza-lana. Galdera askotan erantzunak kontraesankorrak ziren. Aurrera begira, lanketa bat egin behar da. Jendeak benetan jakin dezan zer den zaintza-lana.

GALDETEGIA, ADINAREN ARABERA



Mikel Laboa plaza-Artzabal bidea egokitzen

Abian dira bi eremuok lotzen dituen bidea oinezkoentzat egokitzeko lanak. Egunotan Antxeta jatetxe pareko Zubiaurrena kalearen zatia itxita dago lanengatik.

Bordaberri kaleko espaloia, Artzabalgo parke sarrerakoa eta Zubiaurrena kalekoa batuko dituzte lanekin, handitu, eserleku eta zuhaitzak jarri eta gune hau norabide bakarrekoa bilakatu. Bordaberri kaletik soilik sartu ahalko dira ibilgailuak. Hortik Kontzeju Zarra kaletik gora Mikel Laboa plazarako bideko oinezkoen konexioa



Hurrengo asteotan, lanok eragozpenak eragin ditzakeela ohartarazi du Udalak.

txukunduko du, Sasoi Eraikuntzak enpresak. Hurrengo asteotan, lanok eragozpenak eragin ditzakeela ohartarazi du

Udalak, baina hasiera batean ez da kalerik itxiko; "aurrerago bai, baina orduan jakinaraziko dute".

Etxealdiako zubia itxita

Santuenea eta tren geltokia herri erdigunearekin lotzen duen Etxealdiako zubiaren egitura eta zoladura konpontzen ari dira. Lanok tarteko, lau astez itxita egongo da pasabide hau. Honenbestez Bizkarreko edota Zumartegi industriaguneko pasabidea baliatu beharko da.



Lau astez itxita egongo da pasabide hau.

Baba beltz txikiaren kofradiakoen bilkura

Urtero moduan abuztuko azken ostegunean bilduko dira Saizar Sagardotegian, abuztuaren 27an. 14:00etan jarri dute biltzeko hitzordua. 1997az geroztik egin bezala, kofradekide berria izendatuko dute laiaren laguntzaz kapa beltzak jantzita, hurrengo urtekoa iragarztearekin batera. Guztia, baba beltz txikia elikagai nagusia izango duen bazkarian. Bazkaritara joan nahi duenak lekua hartzeko aurrez sagardotegira deitu beharko du, 943 364 597 telefono zenbakira.



Bazkaritara joan nahi duenak aurrez sagardotegira deitu beharko du.

Etxebizitza eskatzaileen udal erregistroko izen-ematea

Uztailearen 30era arteko epea dute interesdunek Usurbilgo Etxebizitza Eskatzaileen Udal Erregistroan izena emateko. Beharrezko dokumentazioa udal erregistroan aurkeztu beharko da. Erregistro hau aintzakotzat hartuko du Udalak aurrerantzean, alokairu sozialeko etxebizitzak esleitzera-erakoan; ez dira zozketa bidez esleitu, hainbat irizpideren (famiaren osasera, egoera ekonomikoa, babes bereziko kolektiboko kidea izatea...) araberrako baremazio sistema bidez baizik. Udalak egun 19 etxebizitza ditu jabetzan, alokairu sozialera bideratuak.

Udal zerbitzuen udako ordutegiak

Sutegi udal liburutegia:

Asteleheneretik ostiralera: 9:30-14:00 (uztaileko asteleheneratik, 17:00-19:00 artean ere zabalik). Itzulketa eta mailego zerbitzuak, ikasteko aukera... erabilera baldintza berezietan. Aurrez hitzordua eskatu: 943 360 692 / 688 625 477 (whatsapp zerbitzua) / biblioteca@usurbil.eus
Katalogoak: katalogoak.euskadi.eus / liburubila.euskadi.eus

Oiaro Kiroldegia (udal zabalik):

Lanegunetan: 07:00-12:30 / 15:30-20:00 (igerilekuaren itxiera orduak: 12:15/19:45).
Larunbatetan: 9:00-13:00 / 15:30-20:00 (igerilekuaren itxiera orduak: 12:45/19:45).
Igande eta jai egunetan: 9:00-13:00 (igerilekuaren itxiera ordua: 12:45).
Igerilekua, aldagelak, gimnasioa, sauna, rokodromoa zabalik, erabilera baldintza berezietan.

KzGunea:

Uztailearen 30era arte: 9:00-13:00 (abuztuan itxita).
Aurrez hitzordua eskatuta: 945 016 100. Zerbitzuak denbora tar- te mugatuan baliatzeko aukera.

Udal-gobernu taldea: “Covid19-ak baldintzatutako legegintzaldia izango da”

Duela urtebete osatu zen egungo udal-gobernua. Agurtzane Solaberrieta urtebete egin du alkatetzan. “Covid19 birusak baldintzatuko du legegintzaldia”, EHBilduk gidatzen duen udal-gobernuak ohar bidez jakinarazi duenez.

Urtarrilean aurkeztu zuen udal-gobernuak 2019-2023 legegintzako plana, *Usurbiltzen* lelopean. Artean birusa urruneko kontu bat baino ez zen. Planak 130 neurri biltzen zituen bere baitan, lau urteren buruan bete beharrekoak. Webgune bat ere sortu zuten, usurbiltzen.eus helbidean duzue ikusgai.

130 neurriak bertan bilduta bazeuden ere, osatzeko zegoen. “Une oro neurri bakoitza zein egoeratan dagoen azaltzea falta



Hainbat lehentasun onartu dira udaletxean ordezkatuta dauden alderdien artean.

zuen”. Dagoeneko lan hori egin dute. Web orrialdeko *Proiektuak* atalean bildu dituzte guztiak, neurri bakoitza zein den eta zertan den azaltzen duena, argazki eta guzti.

Neurriak bi eratara daude sailkatuta. Dagokien atalaren barruan aurki daitezke (*He-*

rri-nortasuna, Herri jasangarria, Ongizartea eta Udala herriaren zerbitzura), edo betetze-mailaren arabera: haste-ko, hasita eta eginda.

Covid19-aren agerraldiak ordea, “behar berriak azaleratu ditu, eta udal-gobernua hasieran planteatutako neurri

zenbait atzeratu edo bertan behera uztera behartuta badago ere, behar berriek neurri berriak hartzea ekarri du”, diote udal iturriek. “Esaterako, oinarrizko elikadura bermatzeko dirulaguntza sortzearena, herriko merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko sortutako erosketa bonuak edo Usurbilgo Kultur Bira eta usurbilkultura.eus plataforma”.

“Jendearen bizitza da zaindu behar dena”

Hainbat lehentasun jarri eta onartu ditu udal-gobernuak, gainerako alderdiekin batera: “tokiko gizarte-, kultura- eta ekonomia-sarearen zaintzan jarri behar dena. Jendearen bizitza da zaindu behar dena”.

EAJ: “Iñigo Urkulluk gobernu sendo bat osatzeko bermea du”

Usurbilgo EAJ-PNVk bere esker ona adierazi nahi du uztailearen 12ko hauteskundeetan bere zerrendak jaso zuen babesarengatik.

Usurbilgo Alderdi Jeltzaleak idatzi baten bidez eskerrak eman nahi dizkie euren aldeko botoa eman zuten guztiei. “Egoera zail honetan lanean jarraitzeko beharrezkoa dugun indarra eta bultzada jaso dugu”, dio EAJren idatziak.

“Usurbilen jasotako 659 botoekin eta Euskadi osoko



Usurbilgo EAJren hitzetan, “lanean jarraitzeko beharrezko bultzada jaso dugu”.

herrietan izandakoekin batera egoera zail honetan lanean

jarraitzeko beharrezkoa dugun indarra eta bultzada jaso dugu,

eta Iñigo Urkulluk gobernu sendo bat osatzeko bermea du”, adierazi dute Usurbilgo EAJko kideek.

Elkarlanaren beharra

“Orain arte izandako ilusio berberarekin jarraituko dugu buru-belarri”. Alderdiak kanpainan zehar azaldu duen bezala, “zutik gaude, eta zutik ekingo diogu koronabirusak sortu digun erroka zail honi. Horretarako herritarren zein erakunde guztien elkarlana beharrezkoa izango da”.

Erosketa bonuen kanpainak segida izango du

Gertuago bonuek izandako arrakasta ikusita, bonu sorta berri bat plazaratuko duela iragarri du Udalak: “Oraingoan, elikagaien dendak eta tabernak ere sartuko dira. Guztira, beste 20 saltoki inguru”.

Gertuago kanpainak helburu jakin bat zuen. Konfinamenduan zehar halabeharrez itxita egon ziren saltokiei laguntzea. Erosketa bonuek oso harrera ona izan zuten hasiera hasieratik: martxan jarri eta lau egunetan saldu ziren jarritako bonuen erdiak, ia 30.000 euro.

Udalak bonuen bigarren sorta bat ateratzea erabaki du, saltoki gehiagorekin. “Lehenengo aldia bezala, Udalak bere gain hartuko du herritarrek izango duten %20ko deskontu hori”. Bigarren txanda honetan, elikagaien dendak eta tabernak gonbidatu dituzte. Lehengo 30ez gain, beste 20 saltoki inguru izango dira orain.



Gertuago kanpaina aurkeztu zeneko argazkia duzue hauxe. Bigarren txandan 20 saltoki gehiago batu dira.

'GERTUAGO' KANPAINA

“Oraingoan, elikagaien dendak eta tabernak ere sartuko dira. Guztira, beste 20 saltoki inguru”

%20ko deskontua Udalak hartuko du bere gain

Funtzionamendua lehengo bera izango da: edozein bonu

mota erosita ere, %20ko deskontua jasoko dute herritarrek, Udalak bere gain hartuko duena. Saltoki bakoitzak erabakiko du zenbateko bonuak jarri herritarren eskura, eta erosleek egingo duten erosketaren arabera bonua aukeratu ahal izango dute. Tabernen kasuan, kontsumo ohiturak desberdinak direnez, 5 eurokoak izango dira eskainiko diren bonuak.

gertuago.eus web orrian erregistratu beharra dago

Bonuak eskuratu ahal izateko, beharrezkoa da gertuago.eus webgunean erregistratzea. Hori egindakoan, gustuko saltokia bilatu, eta eskaintzen dituen bonuen artean aukeratzeko baina ez da egin behar.

Urbilek ISO14001 ziurtagiria eskuratu du

Urbilek ingurumen arloko Etengabeko Hobekuntzaren Kudeaketarako ISO14001 ziurtagiria berri du. Merkataritza-gunetik adierazi digutenez, 10 urtez jarraian eskuratu dute zigilu preziatua. “Gure ingurunearekin dugun #Urbil-Konpromisoa proiektuaren baitan, ingurumenari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazio kanpainak egiten ditugu urtero, baita barne-ekintzak ere”.

“Hondakinak bereizteko konpromisoa ezartzen aitzindariak izan ginen”

Iraunkortasunari laguntzen dioten jarduerak egiten jarraitzen duela dio Urbilek. “Azken urtean ingurumenarekin lotutako hogeita hamar ekimen baino gehiago egin



“Ingurumenari buruzko sentsibilizazio kanpainak egiten ditugu urtero”.

ditugu: sentsibilizazio ekintzak, kontsumoak murrizteko instalazioen hobekuntzak, Covid19-ari aurreko egiteko neurri bereziak, eta abar. “Gainera, urbil.es webgunean atal berezi bat dugu, eta bertan #Urbil-Konpromisoa lelopean garatutako proiektu guztiak zehazten

ditugu”.

Lurraldean atez ateko sistema ezarri aurretik, “Urbilen hondakinak bereizteko konpromisoa ezartzen aitzindariak izan ginen”. 2010etik hona ISO14001 ziurtagiria du merkataritza-guneak, “eta beste urtebetez auditoria gainditu dugu”.

Zuzeneko saioak Youtuben

Uztailean zehar, Youtube KZguneaTIC bidez zuzeneko saioak eskainiko dituzte, goizez zein arratsaldez:

■ Uztaileak 16, 18:00-19:00: Zure ordenagailua birus eta bestelako mehatxuetatik babestu.

■ Uztaileak 21, 18:00-19:00: Ezagutu Streaming plataformak.

■ Uztaileak 23, 11:00-12:00: Android sekreturik gabe.

■ Uztaileak 28, 11:00-12:00: Azken gailu teknologikoak ezagutu.

■ Uztaileak 30, 18:00-19:00: Murgildu errealitate birtual eta areagotuan.

Bestetik, KZgunea hilabete hasieran zabaldu zuten. Bertara joan aurretik hitzordua eskatu beharra dago ordea, 945016100 telefono zenbakian.

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

INTZA
ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA



**Elkarrekin mundua
aldatu dezakegu!
proba itzazu gure
produktu naturalak**

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41



Lukainkategi Erretegia



Geure plateren zapore paregabeak, Añorgan jateko aukera
hoberenen artean kokatzen gaitu.

Usurbiletik oso gertu, Txikierdiko aldapatik gora kotxez 3 minutura!

Astean zehar eguneko menu zabala dastatu dezakezue eta asteburuan karta
bikainaz gozatzeko aukera duzue.

Aingeru Zaindaria bidea 85, 20018 Añorga Tel. 943 37 14 44

Udajolas eta Kiroldegiko ikastaroak bertan behera, Eguneko Zentroa itxita

Covid19 kasuetan gorakada izan dela argudiatuta, hainbat neurri hartu zituen bat-batean iragan asteburuan Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak; udalekuak eta Eguneko Zentroak ixtea, eta adinekoen egoitzetako irteerak eta bisitak mugatzea.

Usurbila etorrita, uztailearen 30era arte antolaturiko Udajolas bertan behera utzi behar izan genuen. Udalak Eguneko Zentroa ere ixtea erabaki zuen. Bestalde, aste hasieran abiatzekoak ziren udako ikastaroak ere bertan behera geratu dira. “Abuztuan ere eskaintzekoak ziren ikastaro horiek, baina egoeraren arabera baloratuko dute eskaini edo ez”, ohartarazi du Udalak. Erabakiok “prebentziozko eta behin-behineko



Udajolaseko LHko gazteak Txokoalden izan ziren aurreko astean.

neurri gisa” aurkeztu zituen agerraldi bidez Nekane Murga osasun sailburuak. “Datozen egunetan berrikusiko dira”, iragarri zuen.

Herritar bat zendu da istripuz
Bi pertsona hil ziren iragan larunbat gauean istripuz, auto

eta furgoneta batek talka egin ostean, NA-4104 errepideko 8. kilometroan, Nafarroako Sarratsan. Istripu unean bertan ibilgailuotako bateko gidaria, 39 urteko Usurbilgo bizilagun bat hil zen. Nafarroako ospitalean hil zen beste gidaria, Bur-latakoa.

Hipodromoko musika jaialdiak, atzeratuak

Zubietako hipodromoan ospatzekoa zen Donostia Festibala 2021eko irailaren 17 eta 18ra atzeratzea erabaki dute antolatzaileek. Sarrerak erosiak zituenak uztailearen 31ra arte itzultzea eska dezake edo 2021eko ediziorako jaso, baliagarriak izango baitira.

Bitartean aurrean, egun bizi dugun egoerara egokituta, hiriburuko txoko ezberdinetara hedatuko den Donostia Festival Urban prestatu dute.

La Polla Records, 2021ean

La Polla Records taldeak ere irailaren 26rako zuen iragarria agurreko kontzertua hipodromoan. 2021eko irailaren 25ean ospatuko dute. Aurtengorako sarrerak hurrengo urterako baliagarriak izango dira.

Herriko txokoak zaintzeko deia egin du Udalak

“Barbakoa egin, askotariko hondakinak bildu ez” eta bertan utzita alde egin duten Urdaigako parketik irudi kezkarriak jaso ditu Usurbilgo Udalak. Horren harira, “gogorazten du debekatua dagoe la San Estebango Leizekalde parkean sua piztea: hor dau den arteek 100-250 urte artean dituzte, eta Usurbilgo zuhaitz aipagarrien zerrendan daude. Oro har, debekatuta dago sua egitea, eta, are gehiago, Usurbilgo ondare diren zuhaitz horien artean”.

Herriko txokoz gozatzen segi nahi izatekotan, “garbi mantentzea ere beharrezkoa da. Hondakinak sortuz gero, bertako edukiontzietan bota, eta, ezin bada, eraman etxera eta han sailkatu dagokion tokian”.

“Elkar zaindu gaitzen”
Maskaren erabilera derrigo-



“Debekatuta dago sua egitea, eta, are gehiago, Usurbilgo ondare diren zuhaitz horien artean”, dio udal oharrak.

UDALAREN MEZUA

“Jarrai ditzagun osasun eta higiene irizpideak, eskuak maiz garbituz eta distantziak mantenduz”

rezkoa den honetan, eta inguruko herrietan agertu diren covid19 kasu berrien aurrean, “lasaitasunerako deia egin du

Udalak”, egunotan etxe atarrietan jarri duen bandoaren bidez, “baina erlaxatu gabe”. Hilabeteotan bezala, elkar zaintzen segitzeko deia egin du. “jarrai ditzagun osasun eta higiene irizpideak, eskuak maiz garbituz eta distantziak mantenduz. Orain arte bezala, jarrai dezagun arduraz jokatzen, erantzukidetasunez. Elkar zaindu gaitzen”.

Musukoa, derrigorrezkoa

Gune ireki nahiz itxietan musukoaren erabilera derrigorrezkoa erabaki du dekretu bidez Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak.

Pintadak elizaren kanpoaldean

Urdaigakoa ez da kasu bakarra izan. Duela egun batzuk, pintada batzuk agertu ziren Salbatore elizako kanpoaldean.



Salbatore elizaren kanpoaldean egin zuten pintada.

Ruben Gallego: “Futbolak arrakasta du Txinan eta inbertsio handia egiten ari dira”

Txinako Guangzhou Evergrande FC futbol taldean ari da lanean. Harrobiko koordinatzailea da baina entrenatzaile lanak ere egiten ditu. Ia hiru urte egin ditu bertan.

NOAUA! Guangzhou taldeko kide zara. Nola iritsi zinen bertako harrobira?

Ruben Gallego: Sei bat urte daramatzat futboleko murgilduta burubelarri. Aurretik Madrilen aritu nintzen lanean, telefonia arloan.

Oker ez bagaude, lehen urratsak Getafen eman zenituen eta handik Txinara joan zinen.

Arrazoi ezberdinak medio, Madrilerara joan nintzen bizitzera. Getafen bizi nintzen eta bertako harrobian hasi nintzen entrenatzen. Handik Ekuatore Gineara joan nintzen, 20 urtez azpiko emakumezkoen futbol selekzioa entrenatzen. Bi urte egin nituen bertan. Epe erdira ez nuen progresio handirik aurreikusten eta Madrilerara bueltatzea erabaki nuen. Eta Madrilen nintzela, Txinara joateko aukera suertatu zitzaidan.

Zer moduz moldatzen zara Txina partean?

Esperientzia zoragarria izaten



Zutik, ezkerretara, Ruben Gallego. Guangzhou FC-ko emakumezkoen taldea entrenatzen aritu da ikasturte honetan.

RUBEN GALLEGO

“Guangzhou-ren harrobiko taldeen koordinatzailea naiz”

ari da. Ez nuen uste futbolak halako arrakasta zuenik Txinan. Berri samarra da fenomeno, eta eromena da. Inbertsio handia egiten ari dira.

Emakumezkoen futbolak ere arrakasta hori al du?

Lehenbizi harrobiko mutilekin aritu nintzen eta orain urtebete daramat emakumezkoen

taldea entrenatzen, eta ez da gauza bera.

Ikuskaritza-lanak egiten dituzu ala zelaian ere aritzen al zara entrenatzaile lanetan?

Harrobiko talde guztien koordinatzailea naiz. Baina talderen batek lehia garrantzitsu bat duenean, entrenatzaile bezala ere aritzen naiz.

Hizkuntzarekin nola moldatzen zara?

Itzultzaileak ditugu baina, zelaian ari zarenean, futbolari lotutako hiztegia menderatu beharra duzu. Bestela, agindua eman,

itzultzaileak itzuli eta jokalariei itzulitakoa iritsi orduko, bukatu da partida! Nahikoa ondo moldatzen naiz eta egunero saiatzen naiz zerbait ikasten.

Datorren sasoiari Guangzhou-n jarraitzeko asmoa al duzu?

Txapelketan emaitza onak izan ditugu eta horrek asko laguntzen du. Berritzeko aukera asko izan ditzaket baina pandemiaren kontu honekin gauzak aldatu egin dira. Irailera arteko kontratua dut baina ez banaiz laster itzultzen, arriskuan egon daiteke nire etorkizuna bertan.

“Lan kontratu bat dugunez, bertara itzultzeko itxaropena dugu”

NOAUA! Emaztearekin eta semearekin batera joan zinen Guangzhou hirira, ezta?

Ruben Gallego: Hirurak bizi gara bertan. Batzuetan 10-15 egunez joaten naiz beste herrialde batzuetara harrobirako jokalariei berriena bila, baina bestela hantxe izaten gara.

Nolakoa da eguneroko bizitza Txina aldean?

Europako hiri handi batean bi-

zitzea bezala da. Hizkuntza da oztopo bakarra. Ingelesa ari da gutxinaka zabaltzen, baina telefono aplikazioek asko errazten dituzte gauzak.

Bertan jarraitzeko asmoa al duzue?

Bai, beste bi urtez jarraitu nahiko genuke bertan. Bizi kalitatea askoz hobea da Txinan. Hemen zailagoa da lana eta umearen martxa kontziliatzea.

Konfinamendua nola eraman duzue?

Urtarrilaren 18an itzuli ginen Txinatik. Usurbilen 15 egun egin nituen eta Txinara itzultzeko nintzen. Gauzak hobetzen hasi ziren han eta hemen aldiz okertzen. Une batean, Txinak bidaia guztiak eten egin zituen eta Madrilen geratu behar izan genuen. Teletanean ari naiz geroztik.

Orain ez da erraza bertara joatea. Bisatu berezi bat behar



Harrobian aritzen da lanean.

duzu Txinan sartzeko eta bi aste berrogeialdia egin behar da ondoren. Lan kontratu bat dugunez, bertara itzultzeko itxaropena dugu.

“Kultura ezin da geratu, oso garrantzitsua da”

Koronabirusak gizarte bizitza kolokan jarri badu ere, aurrera egin beharra dago. 2020-2021 ikasturteari begira dauden irakasle eta kulturagileen artean, Myriam Ulangak eskarmentu handia du.

Zer da zuretzat musika irakasle izatea?

Lanbidea. Ikasketak oso gustura egin nituen, musikariok oso gogoko dugu musika egitea, kontzertuak eskaintzea eta musikaren bitartez entzulegoari zerbitzu helaraztea. Izan ere, musika hizkuntza bat da, hizkuntza unibertsala. Bizitzan aurrera egiteko eskolak emateko aukera sortu zitzaidan. Oso ondo ezagutzen dut Andoaingo Udal Musika Eskola, 36 urte egin ditudalako bertan lanean.

Lotura handia daukat nire ikasleekin, gauza asko ikasi ditut urte hauetan eta, horrekin batera, irakasteko modua ere eraldatu egin da. Oso lan polita da, eta azkenerako ez da lan gisa hartzen. Nahiz eta irakasle izatea ez den batere lan erraza.

Zer behar da ikasten hasteko?

Gogoia ezinbestekoa da. Tresnaren bat jotzen hasten zaren egunetik musika sortzen ari zara, eta horrek erakartzen du mundu honetan hastea. Tresna bakoitzak bere zailtasuna dauka, baina musika egiten hasten zaren unea zerbitzu berezia da.

Guztiok gogoko dugu musika, eta mundu honetan sartu nahi duenak gustuko musika-tresna aurkitu behar du. Musika gozatzeko da, ondo pasa eta komunikatzeko.

Zeintzuk dira zuzendari baten ardura nagusiak?

Lehenik eta behin, musika eskola antolatzea behar du. Egun,



Kultur ikastaro ezberdinen artean, musika aukeretako bat da. Musika tresnetan sakontzeko aukera eskaintzen da eskualdean. Erreportajea: Aiurri.

MYRIAM ULANGA

“Ume guztiek ikasi beharko lukete musika. Musika ikasiz, sentsibiltatea garatzen duzu”

gauden egoeran egin beharreko antolakuntza handiagoa eta konplexuagoa da; prebentzio eta segurtasun neurriak hartzea ezinbestekoa da guztion osasuna bermatzeko, beraz, datorren urtea konplexua izango da. Banakako klaseak eskaintzen ez dago arazorik; izan ere, ikasle bakoitzak musika-tresna izan ohi du etxean, eta online bitartez modu batera edo bestera eskaini daiteke. Taldeka egin beharreko musika saioetan, berriz, egoera ez da batere erraza, tresna ezberdinak jotzen dituzten ikasleak elkartzen baitira. Hau guztia antolatzea oso zaila izango da.

Konfinamenduaz hitz egin dezagun. Zure alorretik nola joan da guztia?

Eskolak presentzialak izango ez zirela esan zigutenean etxean geratu ginen, baina horrek ez zuen esan nahi gure lana egingo ez genuenik. Hasiera batean, zer egin ez genekiela geratu ginen. Lehen pausoa ikasleekin harremanetan jartzea izan zen. Grabaketak egin eta bidaltzeko eskatu nien ikasleei. Hurrengo pausoa, bideo-deia izan zen. Modu horretan ikasleak musika-tresna nola jotzen zuen ikusteko aukera nuen, jarripena egiteko modu errazagoa bilatu genuen. Hortik aurrera, ikasle guztiekin modu horretan komunikatzen hasi nintzen. Oso berezia izan da guztia. Era berean, azpimarratzekoa da, konfinamenduaren ondorioz, ikasle askok gehiago ikasi dutela etxetik musika eskolan bertan baino.

Iraila eta urria begira, zer da torkiztu burura?

Egoera oso berezia izango da niretzat. Alde batetik, zuzendaritza kargua hartuko dut irailaren lehen. Gainera, bizi dugun egoera honen aurrean guztia planifikatu beharra dago. Prebentzioagatik itxaroteko esan digute jakiteko abuztu bukarran eta iraila hasieran nola dagoen pandemiaren egoera.

Egoeraren arabera hartuko diren neurriek baldintzatuko dute ikasturtearen planifikazioa. Egoera hau ez dugu inoiz bizi, eta, beraz, oso zaila da plangintza bat egitea. Iraila oso hilabete zaila izango da, lanaren eta kudeaketaren aldetik, batez ere. Ondo pentsatu beharko dugu guztia, guztion osasuna jokoan egon daitekeelako, baina ordura arte itxaron egin beharko dugu egoera zein den jakiteko.

Zein aholku emango zenieke haurrei eta gazteei musika munduan murgiltzeko?

Probatzeko esango nieke. Gogoko duten musika motaren arabera, tresna bat edo beste jotzen has daitezke. Probatzeagatik ez da ezer galtzen. Entzun eta ikusi nola jotzen duten bere adineko beste kideek. Ume guztiek ikasi beharko lukete musika, nik horrela pentsatzen dut. Musika ikasiz, sentsibiltatea garatzen duzu, kideekin harremanak gara ditzakezu, eta koordinaziorako oso ona da. Laburbilduz, oso baliagarria da musika bizitzarako.

Tailerrak eta ikastaroak udazkenean

Margoa, egur-taila, joskintza, musika... Eskualdeko udalen eskutik urte hauetan guztietan eskaintza oparoa garatu da. Euskarak pisu nabarmena du, gainera, ikastaroak hizkuntza ezagueraren arabera antola-

tzen baitira. Kasu gehienetan euskaraz eskaintzen dira ikastaroak. Kulturaren eta ezagupenen aldeko joera garrantzitsua handikoa da, baita bizi dugun garai zail hauetan ere.

Bereziki irailean toki ad-

ministratortik luzatzen den eskaintzari adi egon beharko da. Covid19ak eragindako krisiak den-dena baldintzatuko du, besteak beste, ikastaroen kokapena eta ikasle kopurua. Beraz, adi egotea komeni da.

Garai zailak izan arren, ikaslea beti izan ohi da aukera ona. Musika, dantza, joskintza, egur-taila..., Aukera zabalagoa dago Andoainan, Astigarragan, Hernanin, Lasarte-Orian, Urnietan eta Usurbilen.



EUSKARAREN BIDETIK



izena eman udal ikastaro eta tailerretan

Txukun asko utzi zuten Udarregi Ikastolako belardia

Txapelketarako batu ziren bai, baina herriari ere zerbitzu ederra eskaini zioten. Belaunaldi ezberdinetako segalarrien topaketak abiatu zuen Usurbilgo Kultur Biraren baitan, uztailearen 19an ospaturiko Herri Kirolen Eguna.

Txukun askoa utzi zuten partaideek, Udarregi Ikastola pareko belardia. Txukuntasuna zen hain zuzen, proba honetan nagusitzeko irizpide puntuagarria. Emakumezko nahiz gizonzkoen txapelketa ospatu zen. Segaren inguruko kulturaren ere transmisioak bizirik dirauela horren erakusle, besteak beste, 13 urteko bi gaztetxoren parte hartzea. Antolatzaileek iragarri zutenez, iragan igandeko saioa segari buruzko dokumental batean erretratatu geratuko omen da.

“Ez dadila bazterrean geratu”, baserrietako lana kirol jarduera bilakaturiko segarako ohitura bizirik eusteko deia egin zuten antolatzaileek bozgorailuetatik, txapelketan zehar.

Gizonezkoak

-Julen Gabirondo Izeta 03:48:61.
-Miel Mari Jauregi Beloki “Altzo” 04:06:50.
-Jon Otegi Odriozola 04:48:00.
-Bixente Mitxelena Arbelaitz 06:22:97.
-Mikel Lizartza Colomo 06:36:50.
-Joakin Garmendia Garmendia 11:05:00.



Iragan igandeko saioa segari buruzko dokumental batean erretratatu geratuko da.

Emakumezkoak

-Ainara Otamendi Elizalde: 01:49:50.
-Maidier Garmendia Jauregi: 02:16:00.
-Alaitz Imaz Tolosa: 02:41:00.
-Garazi Urkiola Gamarra: 04:09:78.
-Haizea Arruti Mendizabal: 04:23:00.
-Graxi Elosegi Madariaga: 04:48:00.

-Susana Lopez Bigas: 04:49:81.

-Jokin Mikeo Sanchez: 03:13:00.

-Oier Mitxelena Mazkieran: 04:23:69.

Gazteak

-Josu Mendizabal Zubeldia: 02:04:21.
-Iñigo Etxabe Mendizabal: 02:22:00.
-Auritz Alkorta Albisu: 02:50:00.

Gaztetxoak

Izadi Arrospide Uzkudun 01:39:00.
Mattin Etxarri Ripalda 02:00:94.

“Urra” nagusi, Gipuzkoako Harri Txikien Harri-Jasotze Txapelketan

Bero itzela zela lehiatu behar izan zuten. 3 minutuko txanda zuen parte hartzaile bakoitzak. Erronka, nork altxa gehiagotan kopako harria, harri kubikoa eta bola. Denek merezimendu itzeleko ahalegina egin zuten plazan, tartean Manex Aburuza Alduntzin usurbildarrak.

Sailkapena:

- 1.- Mikel Lopetegi Gereka “Urra”: 75 altxaldi.
- 2.- Xabat Olaizola Arizti: 59.
- 3.- Gorka Etxeberria Ikutza: 55.
- 4.- Hodei Iruetagoiena Uri: 53.
- 5.- Iraitz Arruti Artetxe: 42.
- 6.- Manex Aburuza Alduntzin: 37.



Alde handiarekin nagusitu zen Mikel Lopetegi Gereka, “Urra”.

Bi plaza, 1.800 kiloko harriari tiraka



Gabriel Sarasola Ibargoien, Aitor Alkorta Etxeberria, Iñaki Portularrume Unanue eta Iurgi Mendiluze Zuloaga laukoteak ikuskizun paregabea eskaini zuen. Herri Kirolen Eguna borobiltzeko, Inaxio Telleria eta Jose Ramon Olazaranen idiak aritu ziren Dema plazan.

Giza-proba ezin ikusgarriagoa osatu zuen Gabriel Sarasola Ibargoien, Aitor Alkorta Etxeberria, Iñaki Portularrume Unanue eta Iurgi Mendiluze

Zuloaga laukoteak. 1.800 kiloko harriari tiraka, bi plaza pasatxo osatu zituzten. Emozio handiko 20 minutu izan ziren arren, azken txan-

pan ikus-entzuleen oihu eta animu mezuek eman zioten azken bultzada taldeari, eta denbora agortu baino lehen, bi plaza osatu zituzten.

Idien plazaratzea

Inaxio Telleria eta Jose Ramon Olazaranen idiek hartu zuten plaza, Herri Kirolen Eguna borobiltzeko.

Musukoa kendu gabe

Uztaila hasieratik abian dugun Kultur Bira prebentzio neurri zorrotzen artean ospatzen ari dira. Uztailaren 19ko Herri Kirolen Eguna horren erakusle. Herritar bolondres sareari esker ekitaldiak bizi dugun osasun krisialdirako beharrezko segurtasun baldintzetara egokituak daude. Herritarrek zorrotz ari dira errespetatzen irizpideok, Herri Kirolen Egunean bezalaxe.

Plazako harria eta elkarren artean beharrezko segurtasun distantziara ziren eserlekuak hitzordu bakoitzean erabili ostean banan-bana garbitzen aritu ziren. Publikoarentzako eremua egokitu zuten. Aforoa kontrolatzeko ekitaldien guneak hesitu zituzten, herritarren joan etorriak kudeatu. Ekitaldietara musukoak jantzita eta eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbituta ziztuztela sartuko zirela berma-



Herritar bolondres sareari esker, ekitaldiak beharrezko segurtasun baldintzetara egokituak daude.

tu zuten.

Usurbilgo Kultur Bira abiatu zenetik prebentzio neurri zorrotzak ditu antolakuntzak indarrean. Herritarrek ere zorrotz betetzen doazenak. Kul-

tur Bira gainera, unean uneko testuingurura egokitzen doa.

Azken egunotan izan baita aldaketa nabarmen bat; musukoa erabiltzea derrigorrezkoa da orain, gune ireki

nahiz itxietan. Honenbestez baita, herri eragile anitzek elkarlanean prestatu duten kultur eskaintza honetako hitzorduez gozatzerako unean ere.

Malen eta Maddiren kontzertu ederra



Malen Azpiazu eta Maddi Zuloaga kantariak Aginagan aritu ziren. Gartzot (eskubitara) Mikel Laboa plazan aritu zen, Jakin Jardunaldiaren baitan.



Herriko sortzaile berrien agertokia ere izaten ari da Kultur Bira. Uztailearen 17an Aginagan euskal abesti ezagunen erreper- torioa ahotan hartuta, emanal- di ederra eskaini zuten Malen

Azpiazu eta Maddi Zuloaga herrikideek. “Egia esan, ez gara asko ibiltzen bakarlarri bezala, gure lehenengo kontaktua biak batera estilo honetan Lizarrako topaketa feministan izan zen.

Hortik aurrera pare bat aldiz aritu gara”. Kultur Biran parte hartzeko gonbita gustura asko jaso zuten. Antolakuntzak iragarri moduan, “talentua eta ausardia gainezka, euren ahots

indartsuez gozatzeko aukera paregabea” izan zuten Aginagako Eliza Zaharraren atariko plazatxoan bildutakoek. Bezperran Gartzotek emanaldia eskaini zuten Mikel Laboa plazan.

Antzezlanen asteburua



Birritan bortxatua antzezlan Udarregi Ikastolan eskaini zuten eta Skratx ikuskizuna, aldiz, Sutegin.



24 orduko tartean, bi ikuskizun plazaratu zituen Kultur Birak iragan asteburuan. “Denboraren poderioz, super-

heroitik antiheroira nola igarot den” kontatu zuen Skratx ikuskizunak. Jurgi Ekizaren emanaldiaren aurretik Birri-

tan bortxatua antzezlanaren bueltan bildu ziren hamarnaka herritar Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. Nagore

Laffageren eta Iruñeko talde bortxaketako epaiketetan oinarrituta dago Birritan bortxatua antzezlan.

Odolaren Mintzoa eta Dalton Anaiak, Kultur Birako azken hitzorduak

Uztailak 24, ostirala

■ 20:00 Kontzertua Aginagako Eliza Zaharraren kanpoan: Odolaren Mintzoa. “Talde usurbildarra formatu akustikoan arituko da. Argitaratuak dituzten bi diskoetako abestiez eta bertsiok osaturiko kontzertua izango da”.

■ Sarrera: herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez. Sarrerak eskuratzeko epea: uztailak 22. Usurbilgo herritarrentzat bakarrik.

■ Edukiera: 50 lagun.

Uztailak 31, ostirala

■ 20:00 Kontzertua Aginagako

Eliza Zaharraren kanpoan: Dalton Anaiak. “Elektropapo elektrotxarangako kideen proposamen akustikoa dugu Dalton Anaiak izeneko proiektu berria”.

■ Sarrera: herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez. Sarrerak eskuratzeko epea: uztailak 29. Usur-

bilgo herritarrentzat bakarrik. ■ Edukiera: 50 lagun.

Sarrerak eskuratzeko:

usurbilkultura.eus

Informazio gehiagorako:

943 371 999

usurbilkultura.eus



Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ez dakit ezagutzen duzuen Gipuzkoa Passport edo horren berri izan duzuen. Gipuzkoarrontzat, bertakoontzat asmatu den eskaintza turistiko berria da, uda honetan gure lurraldeaz gozatzeko. COVID19-aren pandemia dela-eta, aurten oporretan kanpora edo atzerrira jende gutxiago joango dela aurreikusten da, eta bertan edo inguruan pasako dituela oporrrak jendeak. Hori dela-eta, “Gipuzkoa Passport gure lurraldeaz gozatzeko gida bat da, urte sasoi honetan bizi izan ditugun une magiko horiek gogoratzeko eta zure abentura propioa sortzeko gonbidapen bat”, horrela dago deskribatuta bere webgunean.

Eta horrela jarraitzen du: “Itzuli gure tokirik esan-guratsuenetara eta aurkitu berriak, ikasi gehiago tokiko historiari buruz eta ezagutu gure pertsonaia ospetsuenak. Gure J. S. Elkanok burututako Munduari lehen biraren V. mendeurrenaren ospakizunean, bidaiia desberdin samarra proposatzen dizuegu. Desberdina, baina zirraragarria: izan zaitez bidaiari gure lurraldean! Gipuzkoa txikia da, baina oso aberatsa. Egitasmo eta jarduera ugari eskaintzen ditu, berezi egiten dutena. Agian pentsatuko



“Gipuzkoarrontzat, euskaldunontzat baldin bada, zergatik passport eta ez pasaporte?”.

AINHOA AZPIROTZ

**“Passport?
Zergatik ez pasaporte?
Hitz hori existitzen da
euskaraz,
Euskaltzaindiak onartuta
dago eta ulertzen dugu”**

duzu horietako asko ezagutzen dituzula, baina 50 esperientzia hauek begiratu ondoren, Gipuzkoa uste zenuena baino askoz gehiago dela jabetuko zara, seguru. Ez ahaztu “check” ikurra jartzea egiten duzun guztian!”.

Ez dakit nola funtzionatzen duen, zer esan nahi duen “check” horrek eta zein diren 50 esperientzia horiek. Agian egitasmoa eta planteamendua interesgarriak eta erakarriak izango dira, ez dakit, baina ni izenean geratu naiz: Gipuzkoa Passport. Galde-

ra bat sorrarazi dit berehala: guretzat, gipuzkoarrontzat, euskaldunontzat baldin bada, eta Gipuzkoako lekuetarako gonbidapena baldin bada, zergatik passport? Zergatik ez pasaporte? Hitz hori existitzen da euskaraz, ezta? Euskaltzaindiak onartuta dago, ulertzen dugu eta erabil daiteke. Passport-ek beste kategoria bat ematen ote dio? Moderno itxura agian? Nazioarteko ikuspegia? Beste dimensio bat? Beste “ukitu” bat? Eta hala bada, zer “ukitu” klase? Galderak dira, eta ez daukat erantzunik. Gustura galdetuko nioke Andu Lertxundiri zein den bere iritzia, zer uste duen azkenaldian hainbat erakunde, jarduera eta abar izendatzeko euskara alboratu eta ingelesa erabiltzeari buruz.

Zeren Gipuzkoa Passporten kasua ez da bakarra. Hor ditugu Basque Culinary Center, Bilbao Exhibition Center, Made-

in Euskadi, BBK Live, Urdabai Bird Center, eta oraintxe burura etortzen ez zaizkidan beste batzuk. Agian argudio sendoko arrazoiak egongo dira horretarako, ez dakit. Baina Gipuzkoa Passportena gehitxo iruditu zait, batez ere euskaldunoi eta bertakooi begira egindako eskaintza bat baldin bada. Zeren gauza bat modernoa izatea da, baina... ez ote da gehitxo?

Ingelesez badakigu, baina euskaraz ere ederki ulertuko genuke. Atzerrira eta kanpora joaten garenean ez dugu inolako eragozpenik izaten ingelesa erabiltzeko, baina hemen, etxean, ez daukagu horretarako beharrik. Gurea-ekin ongi moldatzen gara eta gure aldameneko herrietara, mendietara, museoetara edo txokoetara joaten baldin badugu, euskaraz askoz hobe izango da, ezta? Euskaraz hitz egin Gipuzkoako herrietako jendearekin, euskaraz irakurri han eta hemen jarrita dauden azalpenak, Historia bertako hizkuntzan ezagutu... Eta horretarako, ez dugu passportik behar, pasaportearekin ederki moldatzen gara. Gurea maite badugu eta gureari benetako lekua egin nahi baldin badiogu, euskaraz inolako lotsarik eta konplexurik gabe egin diezaiogegu.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
© 943 370 008

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Otar-Goxo
El ikagaia k

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Udarregi Ikastola, ezohiko ikasturte berriaren atarian

Osasun krisialdiak ikastolako martxan eragin dienaz, bizitakoaz eta datorrenaz galdetu diegu lerrootan ezohiko oporraldi eta ikasturtearen atarian diren Udarregi Ikastolako hiru zikloetako koordinatzaileei. Nekane Alduntzinen (HH), Naiara Zabalaren (LH) eta Nerea Erauntzetamurgilen (DBH) pandemia garaiko bizipenak lerrootan.

Presaka egokitu behar

Bapatean egokitu behar izan zuten heldu zitzaizen itxiera agindura. Ikasleak lehenik, langileak egun batzuk beranduago. Ikastolen Elkartearen laguntzaz familia guztiei beharrezko baliabideak bermatzen aritu ziren lehen egunetan. “Ordenagailuak ere banatu ziren, ez zituzten familien kasuan”, oroitu digu Nereak.

Etxean bizi eta lan egitera igaro ziren ikasleak eta irakasleak. “Ez zen erraza izan”, adierazi digu Nereak. Bizilekua lantoki izateko egokitu beharra edota haur nahiz helduen zaintza norbere ogibideko ardurekin partekatu beharra ekarri zuen. Eremu profesionalak eta pertsonalak bat egiteraino. “Klasea online ematen ari



Ekainaren 30ean, Udarregiko langileak klaustroan elkartu ziren ikasturte berezi honi amaiera emateko. Argazkia: Udarregi ikastola.

UDARREGI IKASTOLA

“Deiak egin dira etxe guztietara, ahal den neurrian laguntzen saiatuko garela adierazteko”

nintzela, umea etortzen zitzaidan”, oroitzen du Nereak.

Egiteko moduak aldatu zitzaizkien ikasleei. Online bidezko zuzeneko klaseak etxeko lanetarako ordutegiarekin tartekatu beharra. “Ikasleei autonomia eskatzen zien, antolatuta behar izan zuten”. Te-

lematikoki lan egitearen alde positiboen artean, “aplikazio egokiak erabilia, lanen aurkezpena azkartzen du”. Baina ordutegi zehatzik ez dute izan lanerako, nekagarria ere bai “fisikoki eta psikologikoki” pantaila aurretik mugitu gabe aritzea, lan karga handitu zaie eta “zuzeneko hartuemanen falta” sumatu zuten. “Kontaktatu hori, begirada, galdu genuen. Ordenagailuz ikusten ginen baina begietara begiratu gabe. Iristeko zailagoa izan da”, dio Nereak. Horrez gain, “ez dakizu zenbateraino jaso

duen ikasketa”, ezin erabateko jarraipena egin. Telematikoki lan egitea “hotzagoa da” Erauntzetamurgilen esanetan.

Halere ikasleek “ondo erantzun dute”, dio. Telefonoz nahiz online bidezko hartueman zuzena izan zuten konfinamenduan ikasle eta gurasoekin. “Deiak egin dira etxe guztietara, hemen gaude la esan eta ahal den neurrian laguntzen saiatuko garela adierazteko”. Ikasleei errepikatu izan dieten mezuen artean, “eutsi goiari esaten nien, ondo ari zirela”.

Haurren autonomia lantzeko garai aproposa

HH-n ere ez zen erraza izan. Bapatean etxeratu ziren ikasleak, “bukaera oso tristea izan zen, ikasle askorekin ez ginen agurtu ere egin”. Lehen egunak familiekin nola komunikatu, etxetik nola lan egin antolatzen pasa zuten. Presaka egokitzen, ahal zen moduan. “Erronka pertsonal eta profesional handia izan da”, adierazi digu Nekane. Eten da geratu zen konfiantzaren pedagogiaren baitan, “espazio jakinetan genuen jarduera. Gure kasuan garrantzitsuenak

harremanak dira”, Alduntzinen esanetan. Gomendioak eta online bidezko baliabideak eskaini zizkieten gurasoei, gertutasuna adieraztearekin batera. Eta egun baliagarria izaten segitzen duen mezu argi bat; “elkar lagunduz indartuta aterako ginela larrialdi honetatik”. Abantaila nagusi batean zentratzeko mezua ere luzatu zuten, “familiekin zeuden haurrak” eta bestela elkarrekin egoteko nekez izango duten denbora baliatzea gonbidatu zituzten. Erritmo lasaigoak

eta errutina batzuk finkatzearen garrantzia helarazi zuten. Denborak ahalbidetzen zenez, “haurren autonomia lantzeko garai aproposa zela ikusten genuen”. Telefono deien errondak egin dituzte familiarekin nola zeuden jakiteko. Lehen asteetan, “umeak gustura zeuden. Bizitza hau gustukoagoa zutela zioten”.

14 urtetik beherakoei kalera ateratzea baimendu zitzaizkien eginiko deietan sumatu zuten, “ikasle batzuk ateratzeko zailtasunak” zituzte-

la, “beldurrari lotuta. Etxean hainbeste denbora egote horrek eragin zuen”. Eta kalera atera eta dena arraro; “hasieran ezin lehen kalean egiten zutena egin”. Halere egokitze erakutsi ohi duten gaitasun itzela nabarmentzen du Nekane eta gurasoak gakoak direla sarritan. “Gurasoek nahiko ondo eraman badute, haurrek ere bai. Orohar familiek esan dute, ondo ikusi dituztela seme-alabak”. Eta ikasturte amaierarako nekea ere nabaritu dutela.

“Lasaitu gabe, bakoitzak ahal zuena egitea”

Hasiera oso gogorra izan zen, oroitzen du Naiara Zabalak. LH-n 6-12 urte arteko gaztetxoak dituzte. Baliabide telematikoeekin batzuk eta besteek duten maneian bada alderik. “Egunerokotasunean hori nola egin” erabaki behar izan zuten konfinatzeko agindua heldu zenean, baliabideak falta baziren horiek bermatzea familiei.

“Lehendik zailtasunak ziztuztenek egoera honetan are eta zailtasun gehiagorekin topatu ziren”, Naiararen esanetan. LH-ko guraso guztiei deitu zieten. “Izugarri eskertu zuten”, Naiarak adierazi digunez. Konfinamendu asteetan, “garrantzitsuena osasuna izan zen. Arlo akademikoari dagokionean, lasaitu gabe baina bakoitzak ahal zuena egitea” bultzatu zuten. Orduz gero zehatzik gabe lanean, “etxeko familia giroko interferentziekin eta ordutegi ordenatu hori guztiz galduta” aritu dira irakasleak. Ikasleek ere, etxeko lanak egiteko erritmo ezberdinak izan dituzte, gurasoak bideratzaile lanetan. Jarraipena egin dute.

Balantzaren beste aldean etxealditik ikasitakoa dago. “Gure arteko harremanak,



Agur jaien eta azken bileren hilabetea izaten da ekaina, baina bizi dugun osasun krisialdiak planak aldarazi dizkie ikastolan.

UDARREGI IKASTOLA

**Konfinamendu asteetan,
“garrantzitsuena
osasuna izan zen.
Arlo akademikoari
dago-kionean, lasaitu gabe
baina bakoitzak ahal
zuena egitea”
bultzatu zuten**

umei eskainitako denbora. Etxean egonda bizitzarako oso baliagarriak diren gauza askoren ikasketa; familien arteko komunikazioa, elkar laguntzea...”. Garai zail hauetan, “izugarritziko lana egin dute familiek, zoriontzekoa da.

Ikasleek ere oso lan polita egin dute etxetik”.

Ezohiko ikasturte amaiera

Agur jaien eta azken bileren hilabetea izaten da ekaina, baina bizi dugun osasun krisialdiak planak aldarazi dizkie ikastolan. LH-n guraso bilera presentzialak egin dituzte. “Ondo etorri zaigu” adierazi digu Naiara Zabalak, etxeetan hilabeteoan bizi duten egoeraren berri jasotzeko. Gurasoekin soilik ez, ikasleekin ere “agur txiki bat egiteko aukera izan dugu eta denek eskertu dute”.

Berriz konfinatu behar iza-

nez gero zer hobetu daitekeen ikasteko ere baliagarria izan zaie; etxeko lanen kopurua jarria dute arreta. Gurasoen artean ezin iritsi ibili dira eta “nekea egon da” ikastolatik online bidez jasotako ikasleen etxeko lanak eta gainerako ardurak kudeatzerakoan, Naiarak adierazi digunez. Haien mende geratu baita seme-alaben zeregin hau itxialdian zehar.

DBH-koen kasuan online agurtu dituzte ikasleak, erfortzua behar zuten azken ikasturteko ikasleen kasuan izan ezik. Ikastolatik badoazen 4. mailakoak bildu zituzten agurrerako. “Arraroa izan zen, distantziak mantenduta”, baina agurra gustura jaso zutelaz azaldu digu Nereak.

HH-koek ere azken agurra presentzialki egin ahal izan dute. “Garrantzitsuena iruditzen zitzaigun itxiera bat ematea”. Bizi dugun ezohiko garaion beste adibide bat; gainerako zikloetan ikasturtea agurtzen ari ziren une berean, Haur Eskolan “aldi berean agurrak egiten eta ongi etorriak ematen”. Ekainean zabaldu zuten Kalezarko gunea “kontziliazio beharrak zituzten familietako umeentzat”.

Ikasleek irailaren 7a dute ikasturtea abiatzeko eguna

Hiru eskenatoki posible aurreikusten ditu Ikastolak; klase presentzialak izatea; egun batzuetan ikasgelan eta besteetan etxetik aritzea; eta azkenik, testuinguru zailena, etxeratze agindua balitz guztiz online jardun beharra.

“Ez dakigu zeinekin hasiko garen”, adierazi digu Nerea Erauntzetamurgilek. Ikastolako zuzendaritza taldea abuztuko bigarren hamabostaldian biltzekotan da, pandemiak une horretan duen egoe-

ra aintzakitat hartuta irailetik aurrerakoa prestatzen joateko. Ikasleek irailaren 7a dute ikasturtea abiatzeko eguna.

Hortik aurrera zer gertatuko den ikusi behar; badaezpada testuinguru zailenerako prestatu nahi dituzte ikasleak. LH-tik aipatu digutenez ikasturte hasieran online bidez lan egiteko hezi asmo dituzte ikasleak ikasgeletan, “berriz ere etxeratzea tokatzen bazaigu, beraien ere era autonomoan lan egiteko aukera izan dezaten”.

Nahiz hoberena ikasgelatik lan egitea litzatekeen. Ziklo honetan, “LH 1 eta 2 mailetan irakurketa-idazketa prozesua ematen da, bizi osorako erabiltzen dugun ikasketa”, Zabalak gogorarazi digunez. Horrez gain, online sozializatzeko autonomiarik ez dute, gurasoen laguntza ezinbestekoa dute.

Txikiagoetan, HH-n “adin desberdinetakoak elkarrekin” ibiltzen dira. Irailetik aurrera ezingo dute ziurrenik hala egin. Kalera begira dira. Egoe-

rak eta eguraldiak ahalbidetzen badie “kanpo espazioak baliatu” asmo dituzte.

Agindu berrien zain

Ikasle helduenen kasuan, DBH-n, “beste zikloetan zer gertatzen den, horrek gurea baldintzatuko du”, Nereak adierazi digunez. Gaurkoz “dekretu bat dugu eta horrek jornada jarraian etorri behar dugula dio”. Lehen asteazken eta ostiraletan soilik lan egiten zuten modu honetan.

Aginagako eskola: “Era batera hasi ginen baina moldatzen joan behar izan dugu”

Uztaila hasieran lanean ziren Aginagako Eskolan, aurreikusi ezin daitekeen irailetik aurrerakoa prestatzen. Konfinamenduak erabat hankaz gora jarritako ikasturteaz eta datorrenaz galdetu diegu.

NOAUA! Zertan ari zarete asteotan?

Aginagako Eskola: Datorren ikasturtea antolatzen. Talde egonkorak sortzeko jarraibideak jaso ditugu. Guretzako arazoa da, eskola txikia izanik denak elkarrekin ibiltzen baikara, talde anitzak ditugu. Egoera honetan plan bat burutzen ari gara, guztia aurrera eraman eta ahalik eta egokiena izateko denentzako. Irailan ikusiko da kanpoan zer egoera dagoen, birusa nola dagoen. Horren arabera, agian moldatu beharko dugu.

Ezin aurreikuspen zehatzik egin.

Jakin nahiko genuke plan zehatz bat izateko, baina ezin dugu ezer aurreikusi ez dakigulako zer egoeratan aurkituko garen. Udan gertatzen denaren baitan ikusiko dugu zer egoerarekin topatzen garen irailan. Gure asmoa eta nik uste dut ikastetxe gehienena, presentziala izatea da. Irailaren 7an hasiko dira ikasleak. Gu irailaren 1ean edo egoeraren arabera agian lehenago. Gero ikusiko



Irailaren 7an bueltatuko dira ikasleak eskolara. “Gu irailaren 1ean edo egoeraren arabera agian lehenago”, azaldu digute irakasleak.

AGINAGAKO ESKOLA

“Datorren ikasturteari begira plan bat burutzen ari gara, guztia aurrera eraman eta ahalik eta egokiena izateko denentzako”

dugu pandemia zertan den. Berak baldintzatuko gaitu.

Urte garai honetan izan ohi duzuen dinamika hautsi dizue pandemiak.

Erabat. Guk jada zehaztua dugu hilero ze lan burutu behar ditugun. Ekaina bukatzerako irailerako dena prestatua izaten dugu. Oraingo honetan ezin, moldatu egin behar.

Ikasturtea ere aurrez aurrezko saioak berreskuratu gabe amaitu duzue.

Hartuemanak emailaz edo telefonoz izan ditugu, bideo deiak egin dira. Denek ez dituzte ba-

liabide berak etxean. Orduan paperean ere lanak prestatu zaizkie eta etortzen ziren familiak lanon bila. Momentu haiek ere familiei zer moduz zeuden galdetzeko baliatzen genituen; zer zegokien ondo, zer ez, nola moldatzen ziren etxean... Ikasleak soilik ez, guraso askok ere etxetik ari ziren lanean. Horrek ere familietan ezinegona sortu du, gailuak partekatu beharra. Hori dena antolatzea gogorra izango zen etxe batean baino gehiagotan.

Nola oroitzen duzue ikastetxea berehala ixteko agindu hura?

Fikzioko film baten moduan, sinestezina izan zen. Une historikoa bizitzen ari ginela komentatzen genuen. Momentuan agian ez zara jabetzen ondoren datorren horretaz guztiaz, bai zer bait dagoela eta nola kudeatu behar horrek sortzen dizu halako antsietate edo ezinegon bat. Hau bizitzen genuen lehen

aldia zen denontzat. Era batera hasi ginen baina moldatzen joan behar izan dugu.

Gertutasuneko hartueman hori etenda geratu da hilabeteotan. Nola moldatu zarete?

Gure erara moldatzen hasi ginen, baina familiei telefono deien bitartez galdetu zaie zer bait bota duten faltan, zer bait behar ote zuten... Familietara egokitzen saiatu gara. Zorionez, 30 familia inguru ditugu, orduan “erraza” egin zaigu guztiengana era pertsonalizatuan heltzea.

Hartueman horietan zer jaso duzue familiengandik?

Batzuk eskertzen zuten ikasleek lanak izatea, bestela 24 ordu luze jotzen zuten. Beste batzuk agian ez zuten hori behar. Gehiengoak eskertu duela uste dugu.

Etxetik aritu zarete lanean. Nola moldatu zarete?

Oso gogorra izan da. Ez dakizu egiten ari zarena ondo dagoen edo ez. Bidaltzen dituzun lanak gehiegizkoak diren edo ez, familia bakoitzak egoera ezberdina bizi izan baititu. Hurrengo lanak prestatzen zabilta, ordenagailuan. Ezin deskonektatu. Hau guztia bukatu eta eskolara itzultzeko gogoekin ginen. Hare nahiko ondo bideratu dugu eskolok egoera eta aurrera atera gara.

“Uda topera gozatu dezatela ikasleek”

Orain arte bizitakotik zer ikasi dezakegu, hezkuntza arloan?

Teknologia aldetik asko ikasi dugu. Berriz etxera bueltatzea gertatuko balitz, ikasleek eskertzen dute, batez ere Lehen Hezkuntzakoek, bideo dei bidezko arreta zuzen hori izatea, batez ere beste ikaslee-

kin ere kontaktua mantentzen zutelako, tutoreekin zuzeneko harremana zuten. HH-koa libreagoa izan da, bidali zaizkie lanak orrietan. Bideo deiak ere egin dituzte eta gustura hartzen dute lagunak ikustea. Azkenean zu zure etxean gertatzen zara. Zure familiakoekin,

mugatuta. Lagunak ere ikustea behar dute.

Gurasoei, ikasleei mezurik helarazi nahi?

Uda topera gozatu dezatela, ez baitakigu buelta nolakoa izango den. Pandemiak erakutsi digun moduan, momentua bizi.

Azken hiruhilabeteetan proiektu berezi bat egiteko esan genien ikasleei; denak eskolara itzulitakoan zer irteera gustatuko litzaikeen egitea. Ikasleek izugarritzko lan politak egin zituzten. Irailan, pandemiak aukera ematen badigu, irteera horiek burutzen saiatuko gara.




Joxe Mari Irazusta

EZ hondakinik, EZ dirurik erraustegiarentzat

Erraustegirik gabe gure hiri hondakinak kudeatzea posible dela irmoki erakusten ari da Usurbilgo herria azken hamar urteotan. Aitzindari izan ginen, gaikako bilketa eraginkorra ezartzen (2009), herrian bertan, auzotarren artean bio-hondakinarekin auzokonposta egin daitekeela erakusten (2011), eta, ondo biltzeaz gain, bakoitzak sortzen duen hondakin kopuruaren arabera, modu justuan ordaintzea dela bidezkoena esan eta praktikara eramaten (2014).

Espainiako Gobernuak Usurbilgo udalari debekatu eta gero, Erraustegia Erabakia plataformak 2016an antolatutako galdeketa, partaideon %98ak ezetz esan genion erraustegiari. Emaizta hori jasota, hauxe udal gobernuak adierazitako konpromisoa: “Usurbilgo Udalak jaso du herriaren hitza. Eta, herri borondatearen ordezkari gisa, erraustegiaren mamua haizatzen dutenen aurrean, herriaren hitza errespetatzen eta errespetarazten saiatuko gara. Hala egitea dagokigu, sinesmenez eta koherentziaz. Eta hala egingo dugu”.

Ofizialki inork esan ez arren, badakigu Usurbilgo herrian bildutako errefusa erraustegira eramaten dela azken hilabeteotan. Usurbil-ek, 2017an hasi eta 2023ra bitartean hondakinaren tratamendurako helburuak eta ekimenak “Usurbil 0.0 hondakinaren prebentzio eta kudeaketa programan” jaso eta onartu zituen udalbatzarrak 2017ko ekainean. Errefusa erraustegira eramatea, ez dator bat aipatu programan jasota dagoen eta lorgarritzat jotzen den “0 hondakin



“Herritarren osasuna eta bizi kalitatea zaintzea “udalaren ardatz etikoak” badira, errauste-planta bezalako azpiegitura kutsakor eta kaltegarriekin ez kolaboratzea da gutxienez egin beharrekoa”.

“Udazkenean sinadura bilketa kanpaina bat abian jartzera goaz, “Erraustegia: ez elikatu gure hondakinekin, ez ordaindu gure diruarekin” eskaria udalari egiteko

desmaterializatu edo erraustu” helburuarekin.

Erraustegia piztu zutenetik sortu zen larrialdi egoera honetan, usurbildar asko gara, erraustegira errefusa hondakinak ez eramateko urratsa dela herri honek eman beharreko erantzuna uste dugunak. SOS deia egin beste udalei eta gero gure herriko errefusa hondakinak erraustegira eramatea, ez da koherente jotatzea. Egunero errauste plantaren tximinietatik ateratzen diren ke zutabe erraldoiek, guk Usurbildik bidalitako hondakinaren errekuntzaren parte txiki bat daramate. Etorkizun beltz, kaltegarri eta kutsatu hori elikatzen ari gara. Gu ere porrot horren partaide egiten gara. Aldamenean inork nahi ez duen azpiegitura inposatu horri erregaia ematen diogu, jakinda gaurko eta biharko herritarren osasunean eta ingurumenean kalteak eragingo dituela. Hondakinaren gaikako bilketa ondo egiten ari garen

herriak, ekonomikoki modu injustuan jipoitzeko antolatuen erraustegiaren finantzaketarako plan iruzurtian, kolaboratu egiten da horrela jokatzuz. Eta larriagoa dena, herritarren dirua erabiltzen ari gara geure burua kutsatuko duen muntrotroa finantzatzeko. Kontraesana da.

Erraustegia ere kutsaduraren tenpluko partaide da, eta ez da nahikoa erraustegiaren aurka egotea: erraustegiaren aurka egin egin behar da.

Errefusa gutxi (430 tona) sortzen dugula eta, “gure herritik errauste plantara apenas joango da ezer” adierazten zen udal gobernutik. Hain gutxi izanik, errazagoa da errefusa hondakin horri beste irteera bat ematea. Usurbil 0.0 hondakinaren prebentzio eta kudeaketa programan (2017-2023) jasota dago: “planteamendu errealista eta egingarria mahai gainean jarrita lortu nahi dugu bikaintasuna.” Aipatu programaren ikuskeraren oinarritzko ezaugarrien artean daude: ingurumena eta osasuna lehenestea; azpiegitura makro eta erraldioen ordeztu, azpiegitura doitu eta eskalagarriak sortzea; tokiko konponbideak arazo globalei.

Gaikako bilketa eraginkorra

egiteko alternatiba abian jartzeko ausardia izan genuen bezala, erraustegiarekin ez kolaboratzeko urrats sendoak emateko sasoia heldu da: EZ ERAMAN gure errefusa hondakinak erraustera. Gaikako bilketa eraginkorra abian jartzeko erreferentziazko ereduia izan ginen Usurbilgo udala eta usurbildarro, orain, errefusa hondakinaren tratamendurako ere, beste aukerak badaudela erakusteko tenorea iritsi da. Ez da epelkerietan ibiltzeko garaia. Atzera ez egiteko modu bakarra, aurrera egitea delako. Politikan eta bizitzan, bide berriak irekitzeko, ausardia behar da, gutxienez.

Horrela, Usurbilen 2016ko urrian egindako herri galdeketa parte hartu zuten herritarren %98ak erraustegiari emandako ezetzaren hitza jaso eta errespetarazteko saiakera egiteko hartutako konpromisoarekin fidel jokatuko litzateke.

Herritarren osasuna eta bizi kalitatea zaintzea “udalaren ardatz etikoak” badira, errauste-planta bezalako azpiegitura kutsakor eta kaltegarriekin ez kolaboratzea da gutxienez egin beharrekoa.

Errokkak merezi du, gure herriaren etorkizuna dago jokoan. Horregatik, udazkenean sinadura bilketa kanpaina bat abian jartzera goaz, “Erraustegia: ez elikatu gure hondakinekin, ez ordaindu gure diruarekin” eskaria udalari egiteko.

Pello Aranburu, Manex Zubiria, Miren Maioz, Joxe Mari Zubimendi, Juli Bereziartua, Patxi Azpirotz, Joxe Piñas, Pepe Rivadeneyra.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Munalurra 16, 5ªA pisu bat salgai. 3 logela, 70 metro². Ilogailua egitea onartuta dago eta berehala egingo da. 130.000 euro. [Interesatuak deitu: 617972350](mailto:Interesatuak.deitu:617972350).

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harri. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurrean. Nahiz izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriena. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Alokairuan

Konfinamenduan gustura gabiltza gurasoekin baina etxe bila gabiltzan bikote gazte bat gara. Biok hezitzaileak, lan kontratuarekin eta arduratsuak. 695 747 944

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratu beharrezkoa. 633141060

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Erreka Txiki Kalean. Marradun garaje bat, aparkaleku konpartitua. Moto batentzat lekua alokairuan. 653716914.

Kale Nagusian. Garaje itxia salgai. 16m². Goiko solairuan. Apalategiekin. Hezetasunik gabe. Komunitateko garbitegia. 653716914

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekaxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Udan LH1eko (7 urte) ume bati klaseak emateko pertsona baten bila nabil Usurbilen. 626474232

Irailetik aurrera emakume bat behar dugu bi umei bazkaltzen

eman eta eskolatik jasotzeko. Ordutegia zehazteko daukagu. 658706443

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko deatzaile behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezua: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Pertsona helduak zaintzeko gizona eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz Ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelesez ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuaren haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. 664192760 / 722 48 39 94.

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disonibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disonibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disonibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketarako aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko

**Zorionak Enaitz, Nahiane, Olaia eta Nora!**

Oso ondo pasa!! Muxu asko Odei eta Urkoren partetik.

**Zorionak Beñat!**

Uztailaren 28an 4 urte beteko ditu gure mutil koxkorak. Ondo ospatu eta gozatu zure egunean! Etxekoan partez mila muxu.

**Zorionak Odei!**

Uztailaren 25ean 9 urte beteko dituzu. Muxu potolo bat etxeko guztion partetik.

**Aupa Haizea!!**

Abuztuaren 10ean 3 urte beteko dituzu! Ederki ospatuko dugu! Doraemon katu kosmikoa ere gurekin izango da! Zorionak eta muxu asko familia guztiaren partez.

Bila gabiltza

"Artzabal inguruan katu galdu zaigu uztailearen 11-12ko astebukaeran. Jendearekin egotera ohituta dago. Aurkitu baduzu deitu mese-dez: 688749919".

ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitzeko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuetarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak

edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil,

umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra; gaztea eta euskalduna. Deitu edo bidali whatsapp mezu bat 688637679, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa laneta-

rako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

BESTELAKOAK

Frantseseko klaseak ematen ditut udan, norberaren etxean. 600766068 Jokin

Txirinda bat opari. 9-12 urtekoentzako. 675 712 383. Helbide honetan duzue ikusgai: <https://libb.co/MZxQmf>

Isabelita Mandarina Japoniarrak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	.943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	.943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	.900 776 776	Taxia (Angel).....	.607 928 770
Udaltzaingoa.....	.943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	.677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	.943 370 148	Eusko Tren.....	.943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	.697 919 516	LurraldeBus.....	.943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	.943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	.943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	.943 361 215	Anbulategia.....	.943 362 013
Bake Epaitegia.....	.943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	.943 376 076
Udarregi Ikastola.....	.943 361 216	Iturralde botika.....	.943 363 395
Haur Eskola.....	.943 374 061	DYA.....	.943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	.943 364 600	Gurutze Gorria.....	.943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	.943 372 077	Emergentziak.....	.112
Hastapen tailerrak.....	.943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	.900 840 111 / 016
KZgunea.....	.943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	.943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	.943 372 498	Kutxabank.....	.943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	.943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	.943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	.943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	.943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	.607 609 379	Banco Popular Español.....	.943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	.943 365 249	BBVA.....	.943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	.943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	.943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	.943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	.901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	.692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	.902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	.943 361 239	Telefonica.....	.1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	.943 360 321	Euskaltel.....	.900 840 840

Heriotzak

Don Dada
Asirifi
Koby
Ekainaren 29an
hil zen,
50 urterekin

Heriotzak

Juan Agustín
Hernandez
Martin
Uztailaren 18an
hil zen,
80 urterekin



Heriotzak

Maria Dolores
Ibargoyen
Mitxelena
Uztailaren 20an
hil zen,
67 urterekin



Heriotzak

Jose Ramon
Lizarazu
Goenaga
Uztailaren
20ean hil zen,
53 urterekin



Goardiako farmaziak

Osteguna 23 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 24 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 25 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 26 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astelehena 27 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 28 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 29 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Uztailak 23 - abuztuak 02

Osteguna 30 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 31 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 01 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 02 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda uztaila

24 ostirala

- **Kultur Bira.** Odolaren Mintzoa, 20:00etan Aginagako Eliza Zaharrean.
- **Zorione Mendezen erakusketa** Artzabalen.

25 larunbata

- **Sokadantza Zubietan.** 11:00etan plazan.
- **Bertso-saioa Zubietan.** 19:00etan plazan. Sarrerak usurbilkultura.eus web orrialdean eskuragarri.
- **Zorione Mendezen erakusketa** Artzabalen.

26 igandea

- **Tio Teronen semeak Zubietan.** 19:00etan plazan. Sarrerak usurbilkultura.eus web orrialdean eskuragarri.
- **Zorione Mendezen erakusketa** Artzabalen.

Santio egunez, sokadantza Zubietan

Aurten festarik ez zela antolatuko iragarri zuen Jai Batzordeak. Azken egunotan ordea, hainbat ekitaldi iragarri dituzte Zubietan. Jaien faltan, Kultur Birako eskaintzak girotuko du herria.

Uztailak 25 larunbata

- 11:00 Sokadantza Zubietako plazan.
- 19:00 Bertso saioa Zubietako plazan. Maddalen Arzallus, Andoni Egaña, Jexux Mari Irazu eta Iñigo Mantzizidor 'Mantxi'. Gai-jartzailea: Zortzitan bertso eskola. Sarrerak: usurbilkultura.eus

Uztailak 26, igandea

- Tio Teronen Semeak taldearen Fresh-cool ikuskizuna. 19:00 Zubietako plazan. Sarrerak: usurbilkultura.eus

Kultur Bira, azken txanpan

- Uztailak 24, ostirala: 20:00etan, Odolaren Mintzoaren kontzertua Aginagako Eliza Zaharraren kanpoan.
- Uztailak 31, ostirala: 20:00etan, Dalton Anaiak taldearen kontzertua Aginagako Eliza Zaharraren kanpoan.
- Sarrerak lortzeko: usurbilkultura.eus



Zubietan sokadantza iragarri dute larunbat honetarako. 11:00etan hasiko da.

“Sagardoak Elkartzen Gaitu” Saizarren

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak eta Bertsozale Elkarteak ziklo bat antolatu dute uda honetarako. Hitzorduetako bat, abuztuaren 7koa, Saizar Sagardotegian izango da 20:30ean hasita.

- Sarrerak eskuratu eta informazio gehiagorako, sagardoa.eus atarira jo.

Datozenak

Organo Zikloko bi kontzertu Salbatore Elizan egingo dira

Abuztuak 2, igandea

- 20:00 Loreto Fernandez Imaz organo jolearen eta Ainhoa Zubillaga mezzosopranoaren emanaldia Salbatore Elizan. “Couperin, Fauré, Messiaen, Guridi, Sorozabal eta abarren obra”.

Abuztuak 9, igandea

- 20:00 Pablo Mezzelani (instrumentu multietnikoak), Pedro Aguinaga (biolina) eta Loreto Aramendi (organoa) hirukotearen emanaldia. “Franck, Duruflé, Liszt eta “Vientos y Piedras” (Armenia, Bolivia, Afganistan, Argentina, Txina, eta beste hainbat lekutako pieza tradizionalak)”.

Bi kontzertuetarako gonbidapenak Musika Hamabostaldiaren bulegoetan eskuratu behar dira, Donostiako Zurriola Hiribidea 1 kalean. Astelehenetik ostiralera, 9:30-13:30 artean eskuragarri, edo 943 003 170 telefono zenbakira deituta. Aforoa mugatua.

Informazio gehiago:

www.quincenamusal.eus

Antolatzailea: Donostiako 81. Musika Hamabostaldia.

Laguntzailea: Usurbilgo Udala.



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

www.gertuago.eus



Emaiozu bizitza
herriari!

Erosketa bonu gehiago laster, herriko saltoki gehiagorekin!

%20
des
kontua
bonuetan

Erosketa seguruak,
deskontu eta guzti!

Zer da Gertuago?

Covid19 birusaren ondorioz ezarritako konfinamenduan negozioa itxi behar izan duten Usurbilgo saltokiei laguntzeko proiektua da Gertuago.

Herritarrek herriko saltokietan erabiltzeko bonuak erosiz, merkatariei lagundu ahal izango diete, aldi berean, herria bizi-araziz. **Merkatariei laguntzea herriari bizitza ematea da.** Usurbilgo merkatariek gertu dituzu, esku-eskura!

Abantailak

Herriko merkatariek laguntzeko sortu da Gertuago, eta, aldi berean, herritarrek onurak jasoko dituzte: erosten duzun bonu bakoitzeko, %20ko deskontua izango duzu. Hori, udalaren kontu.

100€
ordaindu
80€

50€
ordaindu
40€

20€
ordaindu
16€

5€
ordaindu
4€



USURBIL
UDALA

gertu@go

Usurbilgo
merkatariek gertu!

**USUR-
BILT-
ZEN**
2019 - 2023



ANORGA TXIBI S.L

KRISTALDEGIA



Beirazko itxitura sistema berria!!!
Perfil bertikalik gabe!!
Zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
Aukera zabalak!



·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45